

Administrazioa Euskadin

1. Sarrera

Azken urteotan erakunde askok lagundu egin dute euskara zabaltzen eta bultzatzen arlo desberdinetan, adibidez administrazioan. Euskal Autonomi Erkidegoko hizkuntza ofiziala euskara zela aitortu zenetik aurrerapauso handiak egin dira. Gertaera hau Autonomia Estatutua onartu zenean izan zen, 1979ko abenduaren 18an.

1982ko azaroaren 24an, euskararen erabilpena arautzen duen legea kaleratu zuten. Lege honetan berresten da euskara gaztelaniarekin batera ofiziala dela Euskal Autonomi Erkidegoko lurraldean eta aipatzen da euskara dela Euskal Herriko berezko hizkuntza. Herritarren oinarritzko hizkuntza-eskubideei buruz mintzatzen du. Euskararen inguruan dauzkagun eskubideak hauek dira adibidez:

- Ikasketak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.
- Aldizkariak, irrati, telebista eta beste komunikabideen emankizunak euskaraz jasotzeko eskubidea.
- Lanbidean, lanean, politikan eta sindikalgintzan euskaraz aritzeko eskubidea.

Urte batzuk geroago, 1989ko uztailaren 6an, Euskal Funtzio Publikoari buruzko legea atera zen. Bere xedea, langile publikoek bete behar dituzten hizkuntz eskakizunak zehaztea da¹. 1997ko 86/1997 dekretuak, bestalde, 1982ko eta 1989ko legeak garatzen ditu. Euskararen normalkuntza prozesua EAEko administrazio publikoan arautzen du².

Aipatutako lege haiek, herritarrok Administrazioarekiko harremanetan dauzkagun eskubideak bermatzea ahalbidetzen dute. 10/1982ko Legean, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko lege honetan, 5. artikuluan aitortzen dira gure hizkuntza-eskubideak:

5. artikulua.

1.- Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.

2.- Euskal Herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

¹ Informazio gehiago helbide honetan aurki daiteke: http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_25?E=&CMD=VERLST&BASE=B03I&DOCS=1-20&CONF=bopv_e.cnf&*=198902092.nord

² Horren inguruko informazioa helbide honetan batzen da: http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/ver_c?CMD=VERDOC&BASE=B03A&DOCN=000008362&CONF=bopv_c.cnf

- a) Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz.
- b) Irakaskuntza hizkuntza ofizial biotan izateko eskubidea.
- c) Aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea.
- d) Lanbide-jarduerak, langintza, politikagintza eta sindikatu-jarduera euskaraz egiteko eskubidea.
- e) Edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubidea.

3.- Herri-agintek eskubide hauen erabilera ziurtatuko dute Autonomia Erkidegoaren lurraldean, eraginkorrak eta benetakoak izan daitezzen.

Hurrengo artikuluetan (6-14) Euskararen erabilerari buruz hitz egiten dute herri-administrazioan Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lur-eremuan.³

- Herritar guztiok, Autonomia Erkidegoaren lurraldean, herri-administrazioarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea;
- Hizkuntza bat aukeratzeko adostasunik ez badago prozedurari hasiera eman dion pertsonak aukeraturakoa erabiltzea;
- Autonomia Erkidegoaren menpeko erregistro publikoetan dokumentuak idatzita dauden hizkuntza ofizialean egitea;
- Zabalkunde ofiziala egin ahal izateko, EAEn kokatutako herri-agintek emandako arau-xedapen zein ebazpen ofizialak bi hizkuntzetan idaztea. Herritarren eskubideak kaltetzen ez badira, euskara bakarrik erabili ahal izango dute;
- Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiak beren aukerako hizkuntza ofizialaz baliatu ahal izatea, inolako itzulpenik gabe;
- Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde, udal, hiri-bide eta toponimo guztien izen ofizialak, beti ere, jatorrizko izena errespetatuz, hizkuntza bakoitzari dagokion idazkera akademikoarekin finkatzea;
- Euskal Herritik abiatzen diren garraio publikoko zerbitzu guztietan inprimakiak, iragarkiak eta herritarrentzako mezuak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira;
- Jaurlaritzak bi hizkuntza ofizialen arteko zinpeko itzultzaile titulua lortzeko eta emateko baldintzak arautuko ditu. Halaber, itzultzaile zerbitzu ofiziala sortuko du;
- EAEn herri-agintek erabili beharreko inprimaki edo idazki-eredu ofizial guztiak bi hizkuntzetan egon beharko dute;
- Herri agintek EAEn herri-administrazioari atxikitako langileria euskalduntzeko neurriak hartuko dituzte.

³ Ikus: <http://www.euskara.euskadi.net/r59->

2. Eskubideak bermatzeko hizkuntza-irizpideak

Lehen aipatutako eskubideak bermatzeko hizkuntza-irizpide batzuk definitu dira. Irizpide hauek administrazio bakoitzaren helburuak eta jarraibideak islatu nahi dituzte. Hurrengo hauek dira:

- Ahozko komunikazioan herritarrak lehenengo pausua ematen duenean, lehenengo hitza beti euskaraz izango da. Gero herritarrak nahi duen hizkuntzan hitz egingo da. Hartzaile jakinik gabeko mezuak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Administrazioen arteko harremanetan eta Jaurlaritza barneko harremanetan lehen hitza euskaraz izango da eta solaskideak euskaldunak badira konpromiso pertsonala hartuko dute elkarrizketa euskaraz egiteko.
- Idatzizko komunikazioan hartzaileak aldez aurretik hizkuntz bat aukeratuta ez badauka bi hizkuntzetan bidaliko zaio komunikazioa eta aukera emango zaio ondo datorkion hizkuntzan erantzuteko. Administrazioak komunikazio bati erantzuten dionean, euskaraz jasotakoak euskaraz erantzunda izango dira eta gaztelaniaz jasotakoak gaztelaniaz. Saihetsi behar dira itzulpenak.
- Komunikazio telematikoan herritarrak aukeratutako hizkuntza erabiliko dute.
- Interneten aukera emango dute euskara edo gaztelania hautatzeko.

Irizpide hauek bete ahal izateko eta euskararen inguruan dauzkagun eskubideak bermatzeko aukera izateko, Eusko Jaurlaritzak normalizazio-plan batzuk jarri zituen martxan.

3. Normalizazio-planak

Plan hauen helburu nagusia euskararen erabilera bultzatzea eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea da. Maila baxuetatik hasi behar da piramideko puntaraino noizbait ailegatu ahal izateko. Gainditu behar den lehenengo zailtasuna euskara lan-hizkuntza izatea da. Geroago, lan harremanetan bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea eta horrela pixkanaka mailak igotzen joan behar dugu.

2008an herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko irizpideak finkatu ziren, handik hilabete batzuetara, Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera normalizatzeko Planak atera ziren. IV. Plangintzaldi hau 2008an hasi eta 2012ko abenduan bukatuko da. EAeko Administrazioan euskararen erabilera izango da erronka nagusia. Lortu nahi dena da euskara eguneroko laneko hizkuntza bihurtzea.

Plangintza honen helburu nagusiak bitan laburbildu daitezke, alde batetik euskararen erabilera handitzea eta beste aldetik langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea.

Plangintzaldi honen oinarriak hauek izan dira:

- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea.
- Langileek dagokien hizkuntza eskakizunak betetzea, horrela euskara zerbitzu hizkuntza moduan erabiltzeaz gain, egin beharreko lanetan euskara erabil litzakete.
- Derrigortasun datak eta hizkuntza eskakizunak euskararen erabilerarekin lotzeko tresna bilakatu behar da. Orain arte euskara ezagutzea eta ikastea bultzatu da baina ez bere eguneroko erabilpena.

Plan honek jarraipen bat izan du: urte bakoitzeko balorazio-txostena eta tarteko balorazio bat egin da eta bukaerako balorazio bat egingo da. Aurreko planen akatsak zuzentzeko, plan honetan metodologia berria proposatzen da.

Planak aurrera egin dezan giza baliabidean zein baliabide materialak behar izan dira. Baliabide-hornitzaileak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, IVAP eta saila bera izango dira.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak izango duen erronka, Administrazio Orokorrean euskararen erabilera zabaltzea izango da. Beste alde batetik, IVAPek hartutako ardura dago, honek langileen hizkuntza-prestakuntza orokorraz arduratuko da, itzulpengintzaz, interpretazioaz eta terminologiaz besteak beste. Bukatzeko Eusko Jaurlaritzak eta bere erakunde autonomoak, plana diseinatzeko, inplementatzeko eta jarraitzeko neurriak hartzeko ardura hartu dute.⁴

Onartu den azkeneko plana Euskara Sustatzeko Ekintza Plana da⁵. Honen helburu nagusia, euskararen erabilera sustatzea da. Plangintza hau hiru helburu inguruan antolatuko da: euskararen jabeakuntza, erabilera eta elikadura.

- Euskararen jabeakuntza: hiru esparru bereiz daitezke, familia bidezko transmisioa, euskarazko irakaskuntza eta helduen euskalduntzea edota euskalduntze-alfabetatzea.
- Euskararen erabilera: erabiliz ikasten da. Faktore ugari baldintzatzen dute euskararen erabilera. Hitzunen kopurua, hitzunek euskaraz egiteko duten gaitasuna eta aukerak,...
- Euskararen elikadura: alde batetik sorkuntza eta beste alde batetik kontsumoa dago. Euskarazko kalitatezko sorkuntza bultzatu behar da, saihestu behar dira itzulpenak testuen mamia galtzen delako. Kontsumoa indartu behar da, gauden era teknologiko honetan esfortzu bat egin behar da gero eta aplikazio eta baliabide gehiago sarean eduki ahal izateko.

⁴ Gehiago jakiteko, ikus:

http://www.euskara.euskadi.net/r59-euhadm2/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/IV_eu.pdf

http://www.euskara.euskadi.net/r59-euhadm2/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/Planaeus.pdf

⁵ Gehiago jakiteko helbide honek daukan informazioa interesgarria izan daiteke:

[http://blog.euskara21.euskadi.net/uploads/Euskara%20Sustatzeko%20Ekintza%20Plana%20\(ESEP\).pdf](http://blog.euskara21.euskadi.net/uploads/Euskara%20Sustatzeko%20Ekintza%20Plana%20(ESEP).pdf)

Plan honetako neurri-ekintzak administrazioaren arloan euskararen erabilera sustatu eta bermatzeko hauek dira:

- Herri-administrazioek plana onartzea eta betetzea.
- Euskararen erabilera areagotzeko neurriak hartzea.
- Herritarrek administrazioarekin dituzten harremanetan, bai ahozkoetan bai idatzizkoetan, bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera izatea.
- Errotulazioan eta noizbehinkako oharretan euskara erabiltzea.
- Agerpen publikoetan euskararen presentzia eta lehentasuna bermatzea.
- Erakundearen ahozko kanpo eta barne-harremanetan euskararen erabilera gehitzeko neurriak hartzea, beti herritarren hizkuntza-aukera errespetatuz.
- Idatzizko harremanetan euskararen erabilera sustatzea, sortze-lanak areagotuz.
- Herri Administrazioetako kargu publikoek euskararen erabilerarekiko jarrera baikorrarekin agertzea.

Plan honek ahalegin handia egin du langileen euskararen ezagutza hobetzeko, ikusi da euskararen ezagutza nabarmen handitu dela. Ahoz zein idatziz euskarak lehen baino presentzia handiago dauka eguneroko lanean, apurka-apurka gaztelaniari lekua irabazten hari dio. Jada planak martxan dituzten erakundeek lanari ekin behar diote hobetzeko eta oraindik abian jarri ez dituztenek, pixkanaka neurriak hartu behar dituzte euskararen erabilera normalizatzeko.

Aurreko planek langileak euskalduntzeko eta alfabetatzeko helburuak zituzten, helburu horiek bete ondoren, plan honen helburua euskara erabiltzea eta euskaraz lan egitea izan da.

Plan honek aurrekoekin alderatuta, ezagutza erabilerara bideratzeko mekanismo berriak ezarri ditu, euskararen erabilerarako metodologia eta jarraipena egiteko tresnak landu ditu, euskara lan hizkuntza bezala erabiltzea bultzatu du,... Azken finean plan honen jomuga erabilera izan da.


Plan hauen hutsa hedapena da, bakarrik EAE hartzen dute eta berez hartu beharko lukete euskararen lurraldea, hiztun guztiengana ailegatu beharko zituzketen planek.

4. Euskararen gaur egungo egoera EAEko Administrazioan


86/1997 Dekretuak arautzen du EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua. Ondoren, 15 urte hauetan eman diren aldaketak ikusiko ditugu.

2006an bost urte edo gehiagoko 2.016.257 biztanle zituen EAEk. Horietatik, %37.5 elebidunak ziren, % 17.3 elebidun hartzailleak eta %45.2 erdaldun elebakarrak. Ikus daiteke atzera begiratuz gero elebidunen ehunekoak nabarmen egin duela gora azken urteotan. Araba da elebidunen ehunekorik txikiena duena gorakadarik handiena izan duen arren.

EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko hainbat plan eta lege egin ziren, adibidez 86/1997 dekretua. 2010ean Eusko Jaurlaritzako %44.3 lanpostuk derrigortasun-data ezarrita zeukaten. Horietarik, %46.3k egiaztatuta zuten behar zuten hizkuntza-eskakizuna.



EAEko hiru foru aldundietan, lanpostuen %58.5ek derrigortasun-data dute. Ia ia gehienek egiaztatuta daukate (%57.8k). Gipuzkoako Foru Aldundiak betetze-maiarik handiena du (%61.5) eta Arakakoak, txikiena (%51.6)



Herri-administrazioei dagokie herritarren hizkuntza eskubideak zaintzea eta bermatzea. Euskararen erabilera normalizatzeko prozesua martxan jarri zenetik nabaritu da euskararen ezagutza handitu dela. Ia lanpostu gehienek egiaztatuta daukate euskara maila, gehienbat Gipuzkoan.

5. Etorkizuneko erronkak

Euskalduntze eta alfabetatze prozesua amaitutzat jo eta gero, hartu behar den erronka erabilerarena da. Guztiz finkatu behar da euskara eguneroko bizitzan. Administrazioan lan egiteko tresneria ia guztiz erdara hutsean dago eta hori aldatu behar da.

Entitate publikoetan euskararen normalkuntza lortu behar da. Horretarako ondo legoke hizkuntza kudeaketako planak onartzea edo berritzea. Langileen inplikazioa lortu, motibatu euskara ikasteko eta erabiltzeko ez behartuta daudelako, nahi dutelako baizik. Erabiltzaileei euskaraz egiteko eskubidea dutela jakinarazi behar zaie batzuk oraindik ez dakitelako. Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak finkatu behar dituzte, baina ez bakarrik finkatu, finkatu eta bete. Administrazioen arteko elkarlana areagotu eta kanpoko komunikazioan euskararen erabilera gehitu behar da.

Beste alde batetik lortu nahi dena itzulpenak aldera batera uztea da. Askotan testu bat euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu nahi denean gaztelaniazkoa itzultzen da. Sortze lanak bultzatu behar dira elebitasuna lortu behar da sortuz ez itzulpenak eginez. Euskara modu integralean garatu behar da, komunikagarritasuna landu eta kalitatezko euskara lortu hizkuntzaren zuzentasuna, erraztasuna eta adierazgarritasuna landuz.

6. Amaierako gogoeta

Irakurritako ideia guztiak eta gero argi geratzen da azken plan honen helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea dela. Baina hori lortzeko gauza asko hartu behar dira kontuan, gauza horietako bat, inportantzia gutxi jasotzen duena, euskara ez dakitenek zergatik ez dakiten edo dakitenek zergatik

erabiltzen duten jakitea da. Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenek normalean txikitatik hitz egin dutelako da eta orduan ez dute ulertzen nola pertsona batek nahiz eta euskaraz jakin ez duela hitz egiten.

Nahiz eta azken urte hauetan euskararen erabilera areagotzeko estrategiak eta ekintzak antolatu eta ahalegin ikaragarria egin, euskararen erabilera ez da hedatu pentsatuta zegoen neurrian. Euskara ez da oraindik bihurtu administrazioaren hizkuntza normala eta ohikoa. Euskararen ezagutza asko igo da, langile gehienek beren lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen dute, baina hori ez du esan nahi gero euskara erabiltzen dutenik. Ohitura ez dagoenean ez da batere erraza hizkuntzaz aldatzea eta egunero gaztelaniaz egiten zen lana orain euskaraz egitea, aldaketa handia da.

Hizkuntza-planei buruz, jarraipen bat egin behar zaie, zer edo zer aldatzeko badago aldatuz hobetzeko. Ez du balio bakarrik plana egitearekin eta irizpideak markatzearekin.

Administrazioan euskararen erabileraren normaltasuna lortzeko pausu asko eman behar dira, hasteko euskara eguneroko hizkuntza bihurtu behar da, horretarako euskararekiko harreman bat sortzea eta euskararen mundura hurbiltzea ondo egongo legoke. Txikitatik euskara ikastea eta belaunaldiz-belaunaldizko transmisioa ez galtzea euskal hiztunak sortzeko. Teknologia berriez baliatuta gazteengana hurbiltzea eta baita ere euskara ikasteko modu bat bihurtzea internet.

Azken finean administrazioan euskara zabaltzea, hedatzea eta pixkanaka eguneroko lanean murgiltzea lortu behar dugu. Hori lortzeko aurrez eguneroko bizitzan lortu behar dugu eta horretarako guztiok ahalegin txikia egin behar dugu.